



HE1ko ELKARRIZKETA

(aztertzailearen gidoia)

Eskolako uniformeak, bai ala ez?

Tori argazkia eta ikusi pixka batean.

1. Sarrera, deskripzioa eta interpretazioa

Zer ikusten duzu? Konparatu janzkerak.

Zeinek darama uniformeak?

2. Narrazioa, sentipenak

Noizkoak dira argazkiak? Garai batekoak? Zergatik?

Nola bizi izan **zenuen** gai hori txikitik? Zer oroitzapen daukazu?

Zer **sentitzen** duzu horri begira?

(Poza? Pena? Harridura? ... Zergatik?)

3. Lehen eta orain

Lehen gehiago erabiltzen al zen uniformeak?

Asko erabiltzen al da orain?

Zer esplikazio bilatzen diozu horri?

4. Abantailak/eragozpenak

Ba al dauka abantailarik uniformeak?

Eragozpenik ikusten al diozu?

5. Alde ala aurka zaude?

Seme-alabentzako nahi zenuke?

Zuen ikastetxean jarriko zenuke?

6. Ondorioak

Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

Eta, aurrerantzean, ZER?